

## **#EGKBeldurBarik** **Lehiaketaren oinarriak**

### **Parte-hartzeko baldintzak**

16-30 urte bitarteko pertsona gaztea izatea

Mezuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita (eta, nola ez, **ligoteo sanoaren** ikuspegian oinarritzea!)

### **Zer aurkeztu**

Mezuei dagokionez:

- Ligoteorako esaldi motzak, argiak eta giro ona sustatzen dutenak
- Elkarrekikotasunean eta errespetuan oinarritutakoak
- Lehiakideari buruz:
- Helbide elektronikoa, telefono zenbaki bat eta izen-abizenak helarazi beharko dira EGKra

### **Nola aurkeztu**

Sare sozialen bitartez parte hartuko da:

- Facebook bitartez:
  1. pausua: #EGKBeldurBarik traolarekin horretarako egokitua dagoen irudian zure mezua idatzi.
  2. pausua: Parteka ezazu lehiaketaren argitalpena era *publikoan* zure profilean
  3. pausua: ez ahaztu mezu pribatuz zure kontakturako datuak helarazteaz
    - Twitter bidez:
      1. pausua: Lehiaketaren argitalpena aipatuz, #EGKBeldurBarik traolarekin zure txioa idatz ezazu.
      2. Pausua: ez ahaztu mezu pribatuz zure kontakturako datuak helarazteaz

### **Epeak eta irizpideak**

Esaldiak aurkezteko epea **uztailaren 5etik irailaren 19ra izango da**

**Irailaren 20an** epaimahaiak mezu guztiak baloratu eta hiru hoberenak hautatuko ditu ondoko hiru irizpideen arabera:

- Elkarrekikotasuna eta errespetua oinarri izatea
- Originaltasuna mezuaren eraikuntzan
- Betiko leloak ekiditea edota hauek berrasmatzea BeldurBarik jarreratik

## SARIAK

- **Finalista** diren hiru pertsona hauek beraien esaldiak biniloan inprimatuta jasoko dute, nahi duten beraien edozein txoko edo gune mezuaz dekoratzeko
- Bestalde, lehiaketan sartzen diren mezu guztiak esaldi eredugarri bilakatuko dira, 2017ko udaran Beldur Barik Guneak osatzeko mezuetan bilakatuko baitira bai eranskailu eta bai biniloetan txertatuz.

## Legezko alderdiak

- Datu pertsonalak luzatuta parte hartzerakoan lehiaketaren **oinarriak irakurri eta ulertzen direla ulertzen da**. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztien **onarpena** adierazten du.
- Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, parte-hartzaileek izen-emate formularioa bidaltzerakoan Gazteriaren Kontseiluari emandako datu pertsonalak lehiaketarako beharrezkoak diren izapide eta gestioetan kudeatzeko baimena ematen diete.
- Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diete Antolatzaileei materiala, doan eta egoki edozein euskarritan **hedatzeko, banatzeko, erakusteko, publikoki komunikatzeko** eta zabaltzeko.
- Euskadiko Gazteriaren kontseiluak lehiaketa honetako oinarriak edozein momentutan **interpretatzeko edo aldatzeko** eskubidea du, baita saria eman gabe uzteko eta lehiaketa bera bertan behera uzteko ere, beti ere tartean neurri hori bidezkotzen duen arrazoiren bat bada. Edozein kasutan, EGK-k oinarri hauetan eman daitekeen edozein aldaketa, eta bere kasuan, lehiaketa osoaren balio gabetzea bide honen bidez komunikatzeko konpromisoa du parte-hartzaile guztiek informazio hori eskura izan dezaten